

PRENTSAKO OHARRA

MAIATZAK 10, IGANDEAN, HIRIBILDUAK 'BILBOKO DUATLOIA' HARTUKO DU INOIZ BAINO NAZIOARTE MAILAKO PRESENTZIA HANDIAGOAREKIN

- **Paul Seco Amundarain-en ohorez Bilboko udaltzaingoak antolatuta, proba Botikazarra Erriberatik abiatuko da goizeko 11:00etan. Informazio guztia Internet bitartez kontsultatu ahal izango da www.betibilbo.org orrian.**

Bilbo, 2009ko maiatzaren 6an. Bilbok datorren igandean, maiatzak 10, 'Bilboko V. duatloia - Bilboko Udala Sari Nagusia' hartuko du; BETI BILBO elkarteak, Udaltzainen artean kirola sustatzeko lanean diharduenak, antolatutako proba da.

Lehiaketa Duatloiko Euskal Zirkuituan puntuagarria izango da eta, halaber, 'Udaltzaintzako Duatloiko VII. Espainiako Koparen' baitan kokatuko da. Gainera, aurten, lehiaketa nazioartekotu egingo da, **une honetako** estatuko nahiz munduko **duatletarik onenen** presentzia berretsita baitago.

Raf Colby Baugh eta James Attard australiarrak, Lorent Galinier eta Nicolas Capoferri frantziarrak, Europako txapelduna den Radka Vodickova txekiarra eta Javi Garcia, Felix Javier Martinez, Alejandro Santamaria, Benito de Torres eta Santiago Arnes espainiarrak dira gehien itxaro diren presentziak. Mikel Elguezabal eta Patxi Urizar euskaldunak ere han izango dira.

Dena dela, lasterketa **parte hartu nahi duten kirolari guztiei** irekia egongo da eta izen-emateak bihar osteguna, maiatzaren 7a, bitartean egin ahal izango dira egun osoan zehar Internet bitartez www.triatloi.org orrian.

Izen-ematea doakoa izango da estatuko edozein udalerritako udaltzaintzat eta, baita, Bilboko Udaleko Babes Zibileko Zerbitzuetako kideentzat ere (suhiltzaileak eta anbulantziak). **Bilbao Kirolak erakundera abonatutakoei %50eko deskontua** egingo zaie, baina gainerako parte-hartzaileek 20 euro ordaindu beharko dituzte federatuta badaude eta, 30 euro, federatuta ez daudenek.

Ibilbide luzeko omenaldia

Irabazi asmorik gabeko kirol-gertaera hori lehenengo aldiz 2005. urtean ospatu zen eta horren bidez, Paul Seco Amundarain Bilboko udaltzain adiskideari -2004ko ekainean trafiko-istripu batean hil zenari- omenaldia egin nahi izan zitzaion.

Seco ohiko kirolaria zen, udaltzaintzako duatloiko Euskadiko txapelduna eta, horregatik, hain zuzen, proba horren paralelo izena eman duten udaltzainen artean sailkapen berezia izango duen beste lehiaketa bat ospatuko da, 'Udaltzaintzako Paul Secoren Oroimenezko IV. Saria'.

Lehiaketa -aurten **400 kirolarik** parte hartzea aurreikusten da-hainbat probek osatuko dute: Campo Volantin eta Uribitarte Kaia bitarteko oinezkoentzako zonatik bide lauan gauzatuko den 5 Km-ko lasterketa batekin ekingo zaio; ondoren, bizikletaz 21 km-ko ibilbidea egingo dute -Artxandako igoera eta Enekuritik barrena jaitsiera barne-eta, amaitzeko, 2,5 km-ko ibilbidea egingo dute oinez lehenengo lasterketa gauzatutako hirigune berdinetik barrena.

Boxesak Botikazarra pasealekuan egongo dira, itsasadarraren ondoan; ibilbideek aurreko edizioarekiko aldaketa txiki batzuk jasan dituzte, nahiz eta, gure hiribilduko tokirik enblematikoenetatik igarotzen jarraituko duten: Guggenheim Museoaren, Euskalduna jauregiaren, Abandoibarra etorbidearen eta abarren ondotik.

Probari buruzko eskuragarri dagoen informazio oro www.betibilbo.org orrian kontsultatu ahal izango duzu.

Igandeko programa (maiatzak 10)

- **08:30etan:** Botikazarra Erriberan dortsalak banatuko dira 10:30ak arte.
- **09:00etan:** Materialen kontrolerako boxesak irekiko dira 10:45era arte. Parte-hartzaileek baimena edo NANA aurkeztu beharko dute.
- **11:00etan:** Probari hasiera emango zaio.
- **12:45etan:** Federazioen kategorietako sari-banaketa
- **13:15etan:** Udaltzaintzako Duatloiko VII. Espainiako Koparen kategoriako sari-banaketa.
- **15:00etan:** Ekintzen amaiera

Kategoriak eta sariak

Parte-hartzaile guztientzat adinaren arabeko sailkapenak egongo dira eta Udaltzaintzat berariazko beste sailkapen batzuk.

Kategoria absolutuetan, jarraian aipatuko diren sariak banatuko dira:

Gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen absolutuko lehenengoei

- **1.** Txapela + Corte Ingles Saria + Bilboko Udala Saria + Bilbao Dendak elkartearen oparia + 450 euro
- **2.** Corte Ingles Saria + 300 euro
- **3.** Corte Ingles Saria + 200 euro

Gainera, **materiala emango da opari**, dauden babesleen arabera.